




KONTUZ

‘Revolving’ TXARTELAk edo kreditu atzeratukoak

Informazioa EZ da argia izaten.
Lukurreriazko kontratu bat kontratatu
dezakezu, edo dagoeneko eduki,
jakitun izan gabe.



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

www.kontsumobide.eus






Zer dira?

Hileko kuota finkoa ezartzea ahalbidetzen dizun kreditu-txartela da: automatikoki **atzeratzen dizkizu erosketak**, baina **kreditua areagutzen** ditu.

Interesa neurritz kanpokoa izaten da; UTBaren (Urteko Tasa Baliokidearen) % 24 gainditu dezake.



Arriskua

- Atzeratutako erosketak bakoitzak zorra eta interesak **kalkulatu**n ditu berriro.
- Interesak zorrari gaineratzen zaizkio, eta, beraz, azken hori handitu egiten da.
- Hileko kuota baxua bada, amortizazio-aldia luzatzen da, eta interesengatiko ordainketa gehiegizkoa edo neurritz gainekoa izaten da.
- Erabilgarri dagoen kreditua handitu diezazukete, kuota oso baxua bada eta zorrari aurre egiteko nahikoa ez bada.



Bankuek eta finantza-erakundeek igortzen dituzte, baina, **adi!** **baita merkataritza-kate handiek ere, ez oso argi, fidelizazio-txartelak direla esanda.**



Gomendioak



- Ahal baduzu, **ez eduki** horrelako txartelik. Ez ezazu erabili ohiko gastuetarako. Inork ez dizu dirua erraz eta merke emango.
- Galdetu zure banku-erakundeari bestelako aukerez, eta konpara ezazu kreditu pertsonalekin edo ohiko txarteekin.
- Ordainketa-modalitate hori duen txartel bat kontratatu aurretik eta ondoren informa zaitez: galdetu berariaz txartela *revolving* modalitatekoa ote den.
- **Ez irentsi amua. Normalean, honelakoak esanez saltzen dituzte:** txartela doakoa da, komisiorik gabea; erosketei lotuta dago; eskuragarritasuna etengabea da; kreditua malgua da (epea edo muga berritu daiteke); kuota baxuak ezarri eta ordainketa atzeratu dezakezu; ez duzu zertan justifikatu dirua zertan erabiltzen duzun; kutzazainetan eskudirua atera dezakezu... **Baina ez dizute azalduko nola funtzionatzen duten.**



- Jakin itzazu ondo honako hauek:

- Zorra amaitutakoan **zenbat ordainduko duzun** guztira.
- Noiz arte luzatzen den **amortizazio-epea**.
- Zenbat **interes ordainduko dituzun** kopuru bat erabiliz gero.
- **Interesei** eta bestelako **gastuei** dagokien kuotaren zatia.
- **Ordainketa bat egin ezean** zer gertatzen den.
- Zein diren **komisioak** eta bestelako **gastuak**.

- *Revolving* txartel bat baduzu, egiten dituzun eragiketei eta zorraren itzulketari adi egon. Emandako kredituaren muga luzatzen bada, berariaz jakinarazi beharko dizute.
- Gorde ezazu dokumentazio guztia: kontratua, laburpenak, publizitatea eta abar; izan ere, erreklamazio bat aurkezten baduzu, baliteke horiek behar izatea.





Edozein txartel mota eskatu aurretik



- Ez eskatu behar dituzunak baino gehiago.
- Eskatu kontratua, eta irakurri baldintzak («letra txikia») patxadaz.
- Ez sinatu ulertzen ez duzun ezer. Galdetu zalantza guztiak.
- Konparatu hainbat aukera, eta hautatu behar duzunari hobeto egokitzen zaiona.
- Kontrolatu zenbat gastatzen duzun. Ahal dela, saihestu erosketak atzeratu eta zorpetzea.



Nola jakin dezakezu zure txartelen bat revolving modalitatekoa dela?



- Irakurri kontratuaren letra txikia, eta begiratu baldintzetan *revolving* terminoa bera agertzen den, ohiko ordainketa-modalitatea kreditu-mugaren ehuneko bat dela dioen eta UTBaren ehunekoak zein den jasotzen den.
- Bidegabeko kobrantzak edo kreditu-muga gaintetzeagatiko komisioren bat kargatu badizute, aurretik horren berri eman gabe.
- Kreditua zabaldu badizute eta horrek interesak sortzen badizkizu.



Nola erreklamatu, txartel batekin arazorik edukiz gero

- 1 Saiatu zaitetz erakundearekin negoziatzen.
- 2 Jarri erreklamazioa, idatziz, zure erakundeko Bezeroen Arretarako Sail edo Zerbitzuan.
- 3 Bi hilabeteko epean erantzuten ez badizute edo erantzunarekin ados ez bazaude, jarri erreklamazioa Kontsumobiden.